| Zb. -0<br>ZERGEN KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKARITZARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA | Nº - 0<br>ORDENANZA GENERAL DE GESTIÓN, RECAUDACIÓN E INSPECCIÓN |
|---|---|

## I.- PRINTZIPIO OROKORRAK:

**1. artikulua.- Ordenantzaren xedea:**

Ordenantza honen xedea Iurretako Udalari dagozkion zergen eta zuzenbide publikoko gainerako sarreren kudeaketa, bilketa, zehapen eta ikuskapen prozedurak arautzea da.

**2. artikulua.- Lege araubidea:**

Zergen eta zuzenbide publikoko gainerako sarreren kudeaketa, bilketa, zehapena eta ikuskapena Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren (Toki Ogasunen Foru Arauan aurreikusitako berezitasunekin), zerga bakoitzari buruzko Ordenantza Fiskalen eta Udal Ordenantza honen bidez eraenduko dira. Ordenantza honetan aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatzen duten xedapen osagarriak beteko dira.

**3. artikulua.- Aplikazio eremua:**

1. Udal honek Iurretako udalerri osoan erabiliko ditu Ordenantza honetan arautzutako gaiei buruz dituen eskumenak.

2. Udalerritik kanpo egin beharreko ikuskaritzak edo nahitaezko diru bilketak, udalerriari dagozkion Zuzenbide Publikoko sarrerekin loturik badaude, Udal honek burutu ahal izango ditu Bizkaiko Lurralde Historikoaren esparruan. Gainerako kasuetan, zeregin horiek ezarrita dauden edo ezar litezkeen lankidetza formulen arabera egingo dira.

**4. artikulua.- Bilketa organoa:**

1. Gai honi buruzko eskumenak dituzten organoak zehazteko, honako baliokidetasun hauek kontuan hartuko dira:

## I.- PRINCIPIOS GENERALES:

**Artículo 1.-Objeto de la Ordenanza:**

El objeto de esta Ordenanza es la regulación de los procedimientos de gestión, recaudación, sanción e inspección relacionados con los tributos y demás ingresos de derecho público, correspondientes al Ayuntamiento de Iurreta.

**Artículo 2.- Régimen legal:**

La gestión, recaudación, sanción e inspección de los tributos y demás ingresos de derecho público se regirá por la Norma Foral General Tributaria, con las especialidades previstas en la Norma Foral de Haciendas Locales, las Ordenanzas Fiscales de cada tributo y por la presente Ordenanza Municipal. En todo lo no previsto en ella, se aplicarán con carácter supletorio las disposiciones legales dictadas en desarrollo de la Norma Foral General Tributaria.

**Artículo 3.-Ámbito de aplicación:**

1. Este Ayuntamiento ejercerá sus competencias, en las materias reguladas por esta Ordenanza, en todo el término municipal de Iurreta.

2. Las actuaciones en materia de inspección o recaudación ejecutiva que hayan de efectuarse fuera del territorio del municipio en relación con los ingresos de Derecho Público propios de éste, podrán ser practicadas por este Ayuntamiento en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia. En los restantes supuestos, se realizarán de acuerdo con las fórmulas de colaboración establecidas o que pudieran establecerse.

**Artículo 4.- Órgano recaudador:**

1. Al objeto de determinar los órganos competentes en esta materia, se realizarán las siguientes equivalencias:

| **Órganos que aparece en la NFGT**<br>**ZFAOn azaltzen diren organoak** | **Equivalencia en el ámbito local**<br>**Toki mailako baliokideak** |
|---|---|
| Hacienda Foral | Hacienda Local |

| | |
|---|---|
| Foru Ogasuna | Tokiko Ogasuna |
| Departamento de Hacienda y Finanzas y Diputado Foral de Hacienda y Finanzas | Alcalde |
| Ogasun eta Finantza Saila eta Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatua. | Alkatea |
| Órganos y cargos dependientes del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas | Concejal delegada/o de Economía, Hacienda y Patrimonio |
| Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatuaren menpeko organo eta karguak | Ekonomia ,Ogasun eta Ondare Saileko Ordezkari jauna/andrea |
| Tesorero<br>Diruzaina | Tesorero<br>Diruzaina |
| Organismos Autónomos Forales<br>Foru Erakunde Autonomoak | Organismos Autónomos Municipales<br>Udal Erakunde Autonomoak |
| Diputación Foral<br>Foru Aldundia | Ayuntamiento<br>Udala |

**5. artikulua.- Kudeaketa:**

Iurretako Udalak bere zergekin loturiko onura fiskalak eman ahal izango ditu, bere aurrekontuen kontura, Foru Arauetan ezarritakoari jarraiki.

**Artículo 5 Gestión:**

El Ayuntamiento de Iurreta podrá conceder beneficios fiscales en materia de sus propios tributos, asumiéndolos con cargo a sus propios presupuestos, de conformidad a lo dispuesto en las Normas Forales correspondientes.

**6. artikulua- Errolda:**

1. Zergapeko egitateak jarraitasuna badu, errolda batean sartuko da. Erroldan interesdunen adierazpenak, Udalak dituen datuak eta ikuskaritzak azalduko dira. Altak, bajak edo aldaketak gertatu eta hurrengo 15 egun baliodunen buruan jakinarazi beharko dira.

2. Erroldak alkatetzaren erabakiz onetsiko dira urtero eta jendaurrean jarriko dira 15 egunez, ukitutako zergadunek haiek aztertu eta bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten, Foru Arauetan eta zuzenbide publikoko sarrerak arautzeko ordenantza espezifikoetan ezarritakoari kalterik egin gabe.

**Artículo 6.- Padrón:**

1. Cuando el hecho imponible tenga carácter de continuidad dará lugar a la creación de un padrón, en vista de las declaraciones de los interesados, de los datos de que este Ayuntamiento tenga conocimiento, así como de las inspecciones. Las altas, bajas o modificaciones deberán ser notificadas en el plazo de 15 días hábiles siguientes al hecho que las produzca.

2. Los padrones se someterán cada ejercicio a la aprobación de la alcaldía y se expondrán al público por un plazo de 15 días al objeto de que los contribuyentes afectados puedan examinarlos y establecer, en su caso, las reclamaciones oportunas. Todo ello sin perjuicio de lo que las Normas Forales correspondientes y las ordenanzas específicas reguladoras de los ingresos de derecho público prevean al efecto.

**7. artikulua- Publizitatea:**

1. Erroldarekin batera, Udalak borondatezko

**Artículo 7.- Publicidad.**

1. El Ayuntamiento junto con el padrón, anunciará

Iurreta
Eleizateko Udala

ordainketarako epea argitaratuko du. Epe hori behin amaituta zordunak zenbatekoa osorik ordaindu ez badu, aldi exekutiboa hasiko da.

2. Kobrantza jakinarazpenean hurrengoa adierazi beharko da:

a) Dirua sartzeko epea.
b) Baimendutako ordainketa moduak.

c) Dirua sartzeko tokiak, egunak eta orduak.
d) Epea behin amaituta zenbatekoa ez bada ordaindu, zorrak premiamenduzko prozeduraren bidez eskatuko direla eta aldi exekutiboan sortutako errekarguak, berandutzako interesak eta sor litezkeen kostuak ere kobratuko direla ohartaraziko zaio zordunari.
e) Helbideratutako ordainagiriak kobrantzara aurkeztuko diren data.
f) Banku helbideratzeek aipatutako kobrantza epean ondorioak izateko muga eguna.

el plazo para el ingreso en periodo voluntario. Transcurrido dicho plazo sin que se haya procedido a la totalidad del pago se iniciará el periodo ejecutivo.

2. El anuncio de cobranza deberá contener:

a) El plazo en que se ha debe realizar el ingreso.
b) Las diferentes modalidades de cobro autorizadas.
c) Lugares, días y horas de ingreso.
d) La advertencia de que, transcurrido el plazo de ingreso, sin haberse efectuado el mismo, las deudas serán exigidas por el procedimiento de apremio y se devengarán los correspondientes recargos del periodo ejecutivo, intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan.
e) La fecha en que se van a pasar al cobro los recibos domiciliados.
f) Fecha límite para que las domiciliaciones bancarias surtan efectos en dicho periodo de cobro.

## II.- ZORRA AZKENTZEA:

## ORDAINKETA:

### 8. artikulua.-Ordainketa egiteko legitimazioa:

Ordainketa zerga behartuak edo hirugarren batzuek egin dezakete, zorra berehala azkenduko delarik. Horrek ez die hirugarrenei Udalaren aurrean inolako eskubiderik emango.

### 9. artikulua.-Tokia eta unea:

1. Ordainketa eskudirutan egin beharko da, kasu bakoitzaren arabera:
a. Zerga bilketarako udal bulegoan
b. Kreditu entitate laguntzaileetan
c. Kutxako zerbitzua eskaintzen duten erakundeetan

2. Ordainketa egiteko epea honako hau izango da:
a) Autolikidazioak: zerga bakoitzari buruzko Ordenantzetan ezarritakoa.

b) Administrazioak egindako likidazioak eta honako eskabide hauek ukatzearen ondorioz eska litezkeenak: ordainketa geroratzea edo zatikatzea, alderdi batek eskatuta konpentsazioa ematea, zorra ordaintzeko ondasunak edo eskubideak ematea edo diru bilketako prozedura etetea, jakinarazpena egin denetik hilabete pasatu baino lehen ordaindu behar dira.

## II.- EXTINCIÓN DE LA DEUDA:

## PAGO:

### Artículo 8.-Legitimación para efectuar el pago:

El pago puede realizarse por cualquiera de los obligados y también por terceras personas con plenos efectos extintivos de la deuda, sin que ello faculte a los terceros para ejercer ningún derecho ante el Ayuntamiento.

### Artículo 9.-Lugar y momento:

1. El pago deberá hacerse en efectivo, según los casos:
a. En la oficina de recaudación municipal.
b. En las entidades de crédito colaboradoras.
c. En las entidades que presten el servicio de caja.

2. El plazo para el pago será el siguiente:
a) Para las Autoliquidaciones: el establecido en las Ordenanzas de cada tributo.

b) Para las liquidaciones practicadas por la administración y las exigibles como consecuencia de la denegación de una solicitud de aplazamiento o fraccionamiento de pago, de compensación a instancia de parte, de dación de bienes o derechos en pago de deuda o de suspensión del procedimiento recaudatorio, en el plazo de un mes desde la fecha de la

c) Aldizkako jakinarazpen kolektiboak, urteko erroldak onetsitako Dekretuan ezarritako epearen barruan.

d) Tinbredun efektuekin egindako ordainketak, zergapeko egitatea egiten den unean.

**10. artikulua.-Ordainketa modua:**

1. Zergen eta zuzenbide publikoko gainerako sarreren bilketa horrela egingo da:
a. Borondatezko aldian: xede horretarako ezarritako epeetan.
b. Aldi exekutiboan: premiamendu bidez.

2. Oro har, aldi exekutiboan ordainketa Diru Bilketa Bulegoan egingo da; nolanahi ere, interesdunak eskatuta, Udalak baimendutako beste edozein modutara egin ahalko da.

**11. artikulua.-Ordainbideak:**

1. Ordainketa eskudirutan egingo da.
2. Eskudiruzko ordainbide hauek onartuko dira:
a. Legezko dirua
b. Helbideratzea Banketxe edo Aurrezki Kutxetan

c. Banku transferentzia
d. Txekea
e. Alkateak beste ordainbide batzuk baimendu ahal izango ditu.

b. Banku helbideratzea:
1. Aldez aurretik Udal Administrazioari eskatuko zaio.
2. Aldizka mugaeguneratzen eta taldeka jakinarazten diren zergetatik bat, batzuk edo guztiak helbidera daitezke.
3. Ordainagiriak jakinarazpenean edo likidazioan adierazten den egunean zordunduko dira kontuan. Datarik zehazten ez bada, borondatezko ordainketarako aldia amaitzen den egunean zordunduko dira.
4. Ordainagiriak itzuliz gero, haien zenbatekoa ez bada ordaintzen borondatezko aldian, bilketa exekutiboa hasiko da.
5. Ordainketen helbideratzeak baliozkoak izango dira aldi mugagabe batez. Zergadunek helbideratzeak deusteztu edo beste establezimendu batera aldatu ahal izango dituzte edozein unetan, Udal Administrazioari horren berri emanez ezarritako epean.

6. Udalak helbideratzea ezeztatu egin ahal izango du ordainagiriak itzultzen bazaizkio edo

notificación.

c) Las notificaciones periódicas de notificación colectiva en el plazo establecido en el Decreto de aprobación de los padrones anuales.

d) El pago hecho con efectos timbrados en el momento de la realización del hecho imponible.

**Artículo 10.-Forma de pago:**

1. La recaudación de los tributos y demás ingresos de derecho público se realizará:
a. En periodo voluntario: dentro de los plazos señalados al efecto.
b. En periodo ejecutivo: por vía de apremio.

2. El pago en periodo ejecutivo, con carácter general, se realizará en la Oficina de Recaudación, si bien se podrá realizar, a solicitud del interesado por cualquier otra forma autorizada por el Ayuntamiento.

**Artículo11.-Medios de pago:**

1. El pago se realizará en efectivo.
2. Son medios de pago en efectivo admisibles:
a. Dinero de curso legal.
b. Domiciliación bancaria en Establecimientos Bancarios o de Cajas de Ahorros.
c. Transferencia bancaria.
d. Cheque.
e. El Alcalde podrá autorizar otros medios de pago diferentes a los anteriores.

b. Domiciliación Bancaria :
1. Se solicitará previamente a la Administración Municipal.
2. Podrá domiciliarse, uno o varios, o la totalidad de los tributos de vencimiento periódico y notificación colectiva.
3. Los recibos serán cargados en cuenta el día que se establezca en el anuncio o en la liquidación. A falta de determinación, los recibos serán cargados el día que finalice el plazo de pago voluntario.
4. En el caso de devolución de recibos, si este no es abonado dentro del periodo voluntario, se iniciará la recaudación ejecutiva.
5. Las domiciliaciones de pago tendrán validez por tiempo indefinido, pudiendo los contribuyentes en cualquier momento, de forma expresa, anularlas o trasladarlas a otros establecimientos, poniéndolo en conocimiento de la Administración Municipal dentro del plazo de validez.
6. El Ayuntamiento podrá revocar la

helbideratutako kontuan ez badago saldo nahikorik.
7. Udalak helbideratze eskabideak aurkezteko muga eguna edo helbideratzeek zein egunetik aurrera eragina izango duten zehaztuko du.

8. Ezohiko kasuetan, Alkateak helbideratutako ordainagiriak borondatez ordaintzeko aldia luzatu ahalko du.

c) Banku transferentzia:

Ordainketa banku transferentziaren bidez egiteko, ordainbide hori baimenduta egon beharko da jakinarazpenean. Jakinarazpenean kontu zenbakia, zenbatekoa, transferentzia egiteko epea eta kontuan zorduntzerakoan idatzi beharreko oharra agertuko dira.

d) Txekea:
Ordainketa txeke bidez egiten denean, txekeak honako baldintza hauek bete beharko ditu:
1.- Izenduna eta Udalaren aldekoa izatea.
2.- Entrega eguna baino lehenagoko data edukitzea.
3.- Entitateak adostuta egotea.
4.- Igorlearen izena edo izen soziala eramatea.
5.- Zorraren ordainketa txekea entregatzen den egunean gauzatuko da, eta entrega egunetik izango du eragina.
6.- Txekearen zati bat edo zenbateko osoa ezin bada kobratu, premiamenduzko prozedura hasiko da.

3. Zor bat kitatzen duenak ordainketaren frogagiria jasotzeko eskubidea izango du.

domiciliación ante la devolución de recibos o por falta de saldo en la cuenta domiciliada.

7. El Ayuntamiento establecerá en cada momento la fecha límite para la admisión de solicitudes de domiciliación o el período a partir del cual surtirán efecto.

8. Por circunstancias extraordinarias el Alcalde podrá ampliar el plazo de pago en periodo voluntario para los recibos domiciliados.

c) Transferencia bancaria:

Para poder hacer el pago mediante transferencia bancaria, esta tendrá que ser autorizada como medio de pago en la notificación, especificando la misma, el nº de cuenta, el importe, el plazo para realizar dicha transferencia y el concepto a establecer como anotación al hacer el cargo en cuenta.

d) Cheque:
Cuando el pago se realice mediante cheque este deberá reunir los siguientes requisitos:
1.- Ser nominativo a favor del Ayuntamiento.
2.- Con fecha anterior a la entrega.

3.- Estar conformado por la entidad.
4.- Nombre o razón social del librador.
5.- El pago de la deuda con cheque es efectiva, el día que se hace efectivo teniendo efectos desde el día de la entrega.
6.- Cuando el cheque no se pueda hacer efectivo en todo o en parte, se irá al procedimiento de apremio.

3. El que pague una deuda tendrá derecho a justificante del pago realizado.

## GERORAPENA ETA ZATIKAPENA

**12. artikulua.- Gerorapena eta Zatikapena:**

1. Alkateak, zerga behartuak hala eskatuta, zorren ordainketa gerorat edo zatikatu ahal izango du zordunaren egoera ekonomiko eta finantzarioak, Udalak zuhurtziarakotasunez aintzat hartuta, ordainketa egitea eragozten badio aldi baterako

2. Eskabidearen edukia BLHko Zerga Bilketari buruzko Araudi Orokorrean ezarrita dagoena izango da.

3. Gerorapena edo zatikapena borondatezko aldian nahiz aldi exekutiboan onartu ahal izango

## APLAZAMIENTO Y FRACCIONAMIENTO

**Artículo 12.- Aplazamiento y Fraccionamiento:**

1. El Alcalde previa solicitud del obligado, podrá aplazar o fraccionar el pago de las deudas cuando la situación económico-financiera, discrecionalmente apreciada impida de forma transitoria efectuar el pago.

2. El contenido de la solicitud será el establecido en el Reglamento General de recaudación de Territorio Histórico de Bizkaia.

3. El aplazamiento o fraccionamiento podrán concederse tanto en periodo voluntario como en

da.

4. Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko gehienezko epea 12 hilabetekoa izango da.

5. Ordainketak Geroratzeko eta Zatikatzeko irizpide orokorrak, borondatezko aldian zein aldi exekutiboan, hauek izango dira:

Gerorapena edo Zatiketa:
i. 1.000 euro arte................................................3 hilabete
ii. 1.000,01 eta 6.000 euro artean ................ 6 hilabete
iii. 6.000,01 eta 12.000 euro artean.............. 9 hilabete
iv. 12.000,01 eurotik aurrera .........................12 hilabete

6. Ordainketak geroratu edo zatikatu ahal izateko, nahitaezkoa da eskatzaileak geroratu edo zatikatutako zorren ordainketa helbideratzea.

7. Zordunak aldi exekutiboan ordaintzeke dituen eta geroratuta edo zatikatuta ez dauden zorren guztizkoa geroratu edo zatikatu beharko da, salbuespenik gabe.

8. Ezohiko kasuetan edo interes publikoko arrazoiengatik, ezohiko gerorapenak edo zatikapenak onartuko dira.

9. Oro har, gerorapenentzat ez da bermerik eskatuko zor den guztizko zenbatekoa 10.000 eurotik beherakoa denean.

10. Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskariari uko egiten bazaio, berandutzako interesak likidatuko dira borondatezko aldia amaitzen den unetik ebazpen ukatzailea ematen edo ordainketa gauzatzen den unera arte igarotako denboragatik.

11. Geroratutako zenbatekoa ez ordaintzeak aldi exekutiboaren hasiera ekarriko du ordaintzeke dagoen guztia kobratzeko.

**13. artikulua.-Berandutzako interesa:**

1. Zerga behartuei eta subjektu arau-hausleei berandutzako interesa ordaintzea eskatuko zaie honako kasu hauetan:

a. Ordainketa ezarritako epean egiten ez badute.
b. Bidegabeko itzulketa bat kobratzen badute.
c. Zorren ordainketa geroratzen edo zatikatzen badute.
d. Zergei buruzko araudian eta indarreko

periodo ejecutivo.

4. El Plazo máximo por el cual se concederá dichos aplazamiento o fraccionamiento será de 12 meses.

5. Los criterios generales de Aplazamiento y Fraccionamiento, tanto en periodo voluntario como en ejecutiva, serán los siguientes:

Aplazamiento o fraccionamiento:
i. Hasta 1.000 euros.............................................3 meses
ii. De 1.000,01 a 6.000 euros ..............................6 meses
iii. De 6.000,01 a 12.000 euros...........................9 meses
iv.. A partir de 12.000,01 euros........................ 12 meses

6. La concesión de aplazamiento o fraccionamiento requiere que el solicitante domicilie el pago de las deudas, aplazadas o fraccionadas.

7. No se tramitaran fraccionamientos ni aplazamientos si no es por el total de las deudas que el deudor mantenga en periodo ejecutivo y no estén aplazadas o fraccionadas, sin excepción.

8. Como consecuencia de circunstancias excepcionales o razones de interés público, se regularán aplazamientos o fraccionamientos excepcionales.

9. Con carácter general no se exigirá al deudor la prestación de garantías para el aplazamiento de deudas cuando el importe total pendiente no supere los 10.000 euros.

10. En los casos de denegación de aplazamiento o fraccionamiento se liquidarán intereses de demora por el período transcurrido desde la terminación del plazo de ingreso en período voluntario, hasta la fecha de la resolución denegatoria o del pago efectivo.

11. La falta de ingreso de la cantidad aplazada determinará la exigibilidad en vía ejecutiva de la totalidad de la deuda pendiente.

**Artículo 13.-Interés de demora:**

1. El interés de demora se exigirá a los obligados y a los sujetos infractores como consecuencia de:

a. Falta de pago dentro del plazo.
b. El cobro de una devolución improcedente.
c. Aplazamiento o Fraccionamiento del pago de deudas.
d. El resto de casos previstos en la normativa

aurrekontu xedapenetan adierazitako gainerako kasuetan.

2. Berandutzako interesa, berau sortzen den aldian indarrean dagoen diruaren legezko interesa gehi %25 izango da, besterik zehaztu ezean.

Zergazkoak ez diren zorrei diruaren legezko interes tasa aplikatuko zaie.

## HUTSEGINAK ETA KREDITU KOBRAEZINAK

**14. artikulua.-Hutseginak:**

Hutseginak dira kaudimengabezia frogatuagatik beraien zorrak ordaindu ezin dituzten zerga behartuak.

**15. artikulua.-Kreditu kobraezinak**

1. Zordun nagusia eta haren erantzule solidario zein subsidiario guztiak hutsegintzat aitortzen badira, kreditua kobraezintzat joko da.

2. Prozedura legearekiko errespetua administrazio eraginkortasunarekin uztartzeko asmoz, kreditu kobraezinen proposamena egin aurretik baldintza batzuk bete beharko dira.

Frogagiriak desberdinak izango dira zorraren zenbatekoaren eta ezaugarrien arabera. Honako kasu hauek bereiz daitezke:

a. 50 €-tik beherako zorren espedienteak

i. Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunarekin nolabaiteko lotura duten helbide guztietara, eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

ii. Emaitza negatiboa duten finantza entitateetako funtsak enbargatzen saiatzea.

b. 50 € eta 500 € arteko zorren espedienteak

i. Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunarekin nolabaiteko lotura duten helbide guztietara, eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

ii. Emaitza negatiboa duten finantza entitateetako funtsak enbargatzen saiatzea.
iii. Emaitza negatiboa duten soldata eta pentsioak

tributaria y disposiciones presupuestarias vigentes.

2. El interés de demora será el legal del dinero, durante el periodo en que aquel resulte exigible, incrementado en un 25%, salvo que se establezca otro diferente.

A las deudas de carácter no tributario, le será de aplicación el tipo de interés legal del dinero.

## FALLIDOS Y CRÉDITOS INCOBRABLES

**Artículo 14.-Fallidos:**

Son fallidos los obligados al pago cuya deuda no puede hacerse efectiva por insolvencia probada de los mismos.

**Artículo 15.-Créditos incobrables:**

1. Declarados fallidos el deudor principal y todos los responsables solidarios y subsidiarios se declara el crédito como incobrable.

2. Con la finalidad de conjugar el respeto al principio de legalidad procedimental con el de eficacia administrativa, se establecen los requisitos y condiciones que habrán de verificarse con carácter previo a la propuesta de créditos incobrables.

La documentación justificativa será diferente en función de los importes y características de la deuda, distinguiéndose los siguientes supuestos:

a. Expedientes con importe de deuda no superior a 50 €

i. Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.
ii. Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.

b. Expediente por un importe de deuda de 50 a 500 €

i. Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.
ii. Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.
iii. Intento de embargo de sueldos y salarios y

enbargatzen saiatzea.

c. 500 € eta 3.000 € arteko zorren espedienteak.

i. Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunarekin nolabaiteko lotura duten helbide guztietara, eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

ii. Emaitza negatiboa duten finantza entitateetako funtsak enbargatzen saiatzea.
iii. Emaitza negatiboa duten soldata eta pentsioak enbargatzen saiatzea.
iv. Jabetza Erregistroan edo beste edozein erregistro publikotan zordunaren izenean inskribatutako ondasunik ez dagoela ziurtatzea.

d 3.000 €-tik gorako zorren espedienteak

i. Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunarekin nolabaiteko lotura duten helbide guztietara, eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

ii. Emaitza negatiboa duten finantza entitateetako funtsak enbargatzen saiatzea.
iii. Emaitza negatiboa duten soldata eta pentsioak enbargatzen saiatzea.
iv. Jabetza Erregistroan edo beste edozein erregistro publikotan zordunaren izenean inskribatutako ondasunik ez dagoela ziurtatzea.
v. Zorra urtebetez aldi exekutiboan egon dela eta kobratu ezin izan dela egiaztatzen duen txostena.

## PRESKRIPZIOA ETA IRAUNGIPENA

**16. artikulua.- Printzipio orokorrak:**

1. Udal honek zerga zorra zehazteko duen ahala preskribatu eta iraungi egingo da.

Preskripzioa eta iraungipena aldi berean gertatuko dira; beraz, administrazioak likidazioaren bidez zerga zorra zehazteko duen ahala ezingo da gauzatu horietakoren bat gertatuz gero.

2. Administrazioak zerga zor likidatuen eta autolikidatuen ordainketa eskatzeko duen ahala preskribatu egingo da, eta baita zerga behartuek zuzenbide publikoko sarrera bakoitzari buruzko arauetatik ondorioztatutako itzulketak, zor ez

pensiones con resultado negativo.

c. Expediente por un importe de deuda de 500 a 3.000 €

i. Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.
ii. Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.
iii. Intento de embargo de sueldos y salarios y pensiones con resultado negativo.
iv. Acreditar que no existe bines inscritos a nombre del deudor, en el Registro de la Propiedad o cualquier otro registro público.

d. Expediente por un importe de deuda superior a 3.000 €

i. Notificación previa de la providencia de apremio, en todos los domicilios que figuren vinculados de alguna forma al deudor y publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia.
ii. Intento de embargo de fondos en entidades financieras con resultado negativo.
iii. Intento de embargo de sueldos y salarios y pensiones con resultado negativo.
iv. Acreditar que no existe bienes inscritos a nombre del deudor, en el Registro de la Propiedad o cualquier otro registro público.
v. Informe confirmando haber mantenido deuda en Ejecutiva durante un año, sin posibilidad de cobro.

## PRESCIPCIÓN Y CADUCIDAD

**Artículo 16.- Principios generales:**

1. La potestad de este Ayuntamiento para determinar la deuda tributaria es objeto de prescripción y caducidad.

La prescripción y la caducidad operarán simultáneamente, por lo que una vez se produzca cualquiera de ellas, no podrá llevarse a efecto el ejercicio de la potestad administrativa para determinar la deuda tributaria mediante la oportuna liquidación.

2. La potestad administrativa de la Administración para exigir el pago de las deudas liquidadas y autoliquidadas y el derecho de los obligados a solicitar y obtener devoluciones derivadas de la normativa reguladora de los ingresos de derecho

diren sarreren itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketa eskatzeko eta eskuratzeko duten eskubidea ere.

público, las devoluciones de ingresos indebidos y el reembolso del coste de las garantías son objeto de prescripción.

3. Preskripzioak eta iraungipenak zerga zorra amaitzen dute eta administrazioaren kabuz aplikatzen dira, zor hori ordaindu izan arren.

3. La prescripción y la caducidad extinguen la deuda y se aplican de oficio, incluso en los casos en que se haya pagado.

**17. artikulua.-Preskripzioa**

**Artículo 17.-Prescripción:**

1. Aurreko artikuluaren 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako administrazioaren ahalek lau urtera preskribatuko dute, zerga zorren kasuan. Zuzenbide publikoko beste sarrera batzuen kasuan, dagokion araudia bete beharko da.

1. El ejercicio de las potestades administrativas previstas en los apartados uno y dos del artículo anterior prescriben a los cuatro años en el caso de deudas tributarias. Para otros ingreso de derecho público, se estará a la normativa correspondiente.

2. Zenbaketa, etenaldi eta preskripzioaren gainerako ondorioen xedeetarako, ZFAOn eta arau hori garatzen duten xedapenetan ezarritakoa beteko da.

2. A los efectos del cómputo, interrupción y demás efectos de la prescripción se estará a lo previsto en la NFGT y sus disposiciones de desarrollo.

**18. artikulua.-Iraungipena**

**Artículo 18.-Caducidad:**

1. Ordenantza honetako 16. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako administrazioaren ahalak sei urtera preskribatuko du.
2. Zenbaketa, etenaldi eta iraungipenaren gainerako ondorioen xedeetarako, ZFAOn eta arau hori garatzen duten xedapenetan ezarritakoa beteko da.

1. El ejercicio de la potestad administrativa prevista en el apartado uno del artículo 16 de esta ordenanza caduca a los seis años.
2. A los efectos del cómputo, suspensión y demás efectos de la caducidad, se estará a lo previsto en la NFGT y sus disposiciones de desarrollo.

## III.- PREMIAMENDUZKO PROZEDURA

## III.- PROCEDIMIENTO DE APREMIO

**19. artikulua.-Premiamenduzko prozedura:**

**Artículo 19.-Procedimiento de Apremio:**

1. Zerga zorrak edo zuzenbide publikoko gainerako sarrerak borondatez ordaintzeko epea behin amaituta ez badira zorrak osorik ordaindu, aldi exekutiboa hasiko da ordaintzeke dagoen zatia ordainarazteko.

1. Trascurrido el plazo para el pago en periodo voluntario, de las deudas tributarias o demás ingresos de derecho público, sin que estas se efectúen en su totalidad, dará comienzo el periodo ejecutivo por las deudas pendientes.

2. Aldi exekutiboa hasterakoan %5eko errekargua eta berandutzako interesak ezarriko dira, premiamenduzko probidentzia jakinarazten den egunetik zorra ordaintzeko epearen mugara arteko aldian izan ezik.

2. El inicio del periodo ejecutivo supone un recargo del 5% y la determinación de intereses de demora, salvo por el periodo transcurrido desde que se dicta la providencia de apremio y la fecha en que finalice el plazo que se concede para hacer frente al pago de la deuda.

3. Ordaintzeko epea behin amaituta %20ko premiamendu errekargua eskatuko da, borondatezko aldia amaitu zenetik kuotaren gainean sortutako interesez gain.

3. Trascurrido el plazo de pago, se exigirá el recargo de apremio, que será del 20%, así como los intereses devengados desde la finalización del periodo voluntario, sobre la cuota.

## IV.- ADMINISTRAZIO BIDEKO BERRIKUSPENA

## IV.- REVISIÓN EN VÍA ADMINISTRATIVA

**20. artikulua.-Birjartze Errekurtsoa:**

1. Zergen eta zuzenbide publikoko gainerako sarreren aplikazio eta eraginkortasunari buruzko egintzen kontra birjartze errekurtsoak jartzeak ez du inpugnatutako egintzaren betearazpena etengo, dagozkion lege ondorioekin, kuota edo eskubide likidatuen bilketa, interesak, errekarguak eta zehapenak barne. Zerga zehapenak ezartzeko egintzak automatikoki etenda geratuko dira errekurtsoa jartzen bada.

2. Hala ere, birjartze errekurtsoa epe eta denbora egokian aurkezteak inpugnatutako egintzaren betearazpena automatikoki etengo du bermerik aurkeztu beharrik gabe, zerga zorra borondatezko aldian badago edota errekurtsoa premiamenduzko probidentziaren aurka jarri bada eta, kasu bietan, borondatezko aldia amaitzen den unean zor den zenbatekoa 7.500 euro edo gutxiagokoa bada.

3. Aurreko puntuan adierazitakoak baino zenbateko handiagoen kasuan, interesdunak, errekurtsoa jartzeko epearen barruan, inpugnatutako egintza etetea eskatu ahal izango du. Horretarako, ezinbestekoa izango da bermea jartzea, errekurtsogileak honako hauen artean aukeratu beharko duelarik:

- Eskudirua edo herri baloreak gordailatzea.

- Kreditu entitate edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal edo fidantza solidarioa, edota kauzio aseguruaren ziurtagiria.

4. Errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak bermerik gabeko prozedura etetea erabaki ahalko du, bermea derrigorrezkoa denean Ordenantza honetan etenaldi automatikorako ezarritako muga gainditu delako, honako kasu hauetan:

- Oker aritmetikoa, materiala edo egitetatezkoa egon daitekeela ikusten bada.

- Errekurtsogileak bermea aurkeztu ezina alegatu eta justifikatzen badu, ebazteko eskumena duen organoaren irizpidearen arabera.

5. Etetea ematearen ondorioz, haren denbora guztiarengatik berandutzako interesak ordaindu beharko dira beti, eta birjartze errekurtsoan bakarrik izango ditu ondorioak.

**Artículo 20.-Recurso de Reposición:**

1. La interposición del recurso de reposición contra los actos sobre aplicación y efectividad de los tributos locales y restantes ingresos de derecho público, no suspenderá la ejecución del acto impugnado, con las consecuencias legales consiguientes, incluidas la recaudación de cuotas o derechos liquidados, intereses, recargos y sanciones. Los actos de imposición de sanciones tributarias quedarán automáticamente suspendidos con la interposición del recurso.

2. No obstante la interposición en tiempo y forma del recurso de reposición, suspenderá de forma automática y sin necesidad de aportar garantías, la ejecución del acto impugnado, cuando la deuda tributaria estuviere en período voluntario de pago o se hubiese interpuesto el recurso de reposición contra la providencia de apremio, y siempre que, en ambos casos, la cuantía de la deuda pendiente a fin de periodo voluntario de pago fuese igual o inferior a 7.500 euros.

3. Para cuantías superiores a las indicadas en el punto anterior, el interesado podrá solicitar, dentro del plazo para interponer el recurso, la suspensión de la ejecución del acto impugnado, a cuyo efecto será indispensable acompañar garantías a elección del recurrente, que son las siguientes:

- Deposito de dinero o valores públicos.

- Aval o fianza de carácter solidario prestado por entidades de crédito o sociedad de garantía recíproca o certificado de seguro de caución.

4. El órgano competente para resolver el recurso acordará la suspensión del procedimiento sin prestación de garantía alguna, cuando ésta resulte obligatoria por superar el límite establecido en esta ordenanza para la suspensión automática, en los siguientes casos:

- Cuando se aprecie que se ha podido incurrir en error aritmético, material o de hecho.

- Cuando el recurrente alegue y justifique, a criterio del órgano competente para resolver, la imposibilidad de prestarla.

5. La concesión de la suspensión llevará siempre aparejada la obligación de satisfacer intereses de demora por todo el tiempo de aquella y sólo producirá efectos en el recurso de

reposición.

6. Birjartze errekurtsoa hilabeteko epean jarri behar da, berraztertzeko eskatzen den egintzaren berariazko jakinarazpena egiten den egunaren edo zergadunen edo ordaintzera behartuta daudenen errolda edo matrikulak jendaurrean egoteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

6. El recurso de reposición se interpondrá dentro del plazo de un mes contado desde el día siguiente al de la notificación expresa del acto cuya revisión se solicita o al de finalización del período de exposición pública de los correspondientes padrones o matrículas de contribuyentes u obligados al pago.

## V.- IKUSKARITZA PROZEDURA

## V.- PROCEDIMIENTO DE INSPECCIÓN

**21. artikulua.- Zerga Ikuskaritza:**

Zerga ikuskaritza BLHko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean, BLHko Zerga Ikuskaritzaren Araudia onesten duen 99/2005 Foru Dekretuan eta gainerako xedapen osagarrietan ezarritakoaren arabera egingo da.

**Artículo 21.- Inspección Tributaria:**

La inspección tributaria se desarrollará de conformidad con lo establecido en la Norma Foral General Tributaria del THB 2/2005 y en el Decreto Foral 99/2005 por el que se aprueba el Reglamento de Inspección Tributaria del THB y demás disposiciones complementarias.

## VI.-ZEHATZEKO ARAUBIDEA

## VI.-RÉGIMEN SANCIONADOR

**22. artikulua.- Zehatzeko Ahala:**

Zehatzeko prozedura BLHko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean, BLHko Zerga Zehapenaren Araudia onesten duen 100/2005 Foru Dekretuan eta gainerako xedapen osagarrietan ezarritakoaren arabera egingo da.

**Artículo 22.- Potestad Sancionadora:**

El procedimiento sancionador se desarrollará conforme a lo establecido en la Norma Foral General Tributaria del THB 2/2005 y en el Decreto Foral 100/2005 por el que se aprueba el Reglamento Sancionador Tributario del THB y demás disposiciones complementarias.

## VII.- AZKEN XEDAPENA:

Udalbatzak, 2006ko abenduaren 18an egindako bileran, onetsi zuen ordenantza hau. (2006ko abenduaren 28ko 246. BAOn argitaratua).

2007ko urriaren 29ko batzarraldian aldatu zen (2007ko abenduaren 28ko 252. BAOn argitaratua).

2011ko azaroaren 8ko batzarraldian aldatu zen (2011ko abenduaren 28ko 246. BAOn argitaratua).

2012ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

## VII.- DISPOSICION FINAL:

La presente Ordenanza fue aprobada por el Ayuntamiento Pleno, en sesión extraordinaria de fecha 18 de diciembre de 2006. (publicado en el B.O.B. nº 246 de 28 de diciembre de 2006).

Modificada en sesión Plenaria de 29 de octubre de 2007 (publicado en el B.O.B. nº 252 de 28 de diciembre de 2007).

Modificada en sesión Plenaria de 8 de noviembre de 2011 (publicado en el B.O.B. nº 246 de 28 de diciembre de 2011).

Entrada en vigor el 1 de enero de 2012.